



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO UZTAILAREN 20AN
GOIZEKO 8:40AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Garcia Palacios eta Josune Estella Arranz.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi du: Alaitz Aizpurua Labaka.

1.- ATALLU AUTOAK KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIAK, ATALLU INDUSTRIALDEKO ORIA KALEA 4. PABILOIAN IBILGAILUAK KONPONTZEKO EZARRITAKO TAILERRARI IREKITZEKO BAIMENA EMATEA ETA ERROTULUA LEGEZTATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2015-0082

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko apirilaren 28an, RAMON ALBERDI BURGETE eta IÑAKI MANTEROLA OLIDEN jaunei, Atallu industrialdeko Oria kalea 4. pabiloian ibilgailuak konpontzeko tailerra ezartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2015-0082

ESKATZAILEA: ATALLU AUTOAK (Ramon Alberdi eta Iñaki Manterola)

JARDUERA MOTA: Ibilgailuak konpontzeko tailerra

NON KOKATUA: Oria kalea 4 – Atallu industrialdea

Orain berriz, ATALLU AUTOAK KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIAK (IFK: F-75129858), Atallu industrialdeko Oria kalea 4. pabiloian ibilgailuak konpontzeko ezarritako tailerraren irekiera baimena eskatu du.

Horrekin batera, tailerraren aurrealdean jarritako errotulua legeztapena eskatu dute (Esp. Zenbakia: HZ.05/2015-0126).

JARDUERAREN IKUSKAPEN-BISITALDIA

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, ondoko txostena erran du:

ESKAERA: Ibilgailuen konponketaren jarduera proiektua baimentzea
ESKATZAILEA: Ramon Alberdi Burgete- Iñaki Oviden Manterola



Usurbilgo Udala



JARDUERA: Ibilgailuen konponketa tailerra
KOKAPENA: Oria kalea 4 (Atallu industrialdea)
ESP. ZENB.: HZ.07/2015-0082

AURREKARIAK

2015eko apirilaren 8an Tokiko Gobernu Batzarrak Aldeko informea eman zion Atallu industrialdeko Oria kalea 4. pabilioian, Ramon Alberdi Burgete eta Iñaki Oliden Manterolak ibilgailuak konpontzeko ezarri nahi duen tailerrari.

2015eko ekainaren 9an ordezeko alkateak jakinerazpena helarazten dio neurri zuzentzaileak osatzeko eta dokumentazio osagarria aurkeztea eskatuz.

TXOSTENA

Ibilgailuak konpontzeko jarduera eta pabilioiaren amaiera ziurtagiria aurkeztu dute Ramon Alberdi Burgete eta Iñaki Oliden Manterolak. Amaiera ziurtagiriarekin batera eskatutako gainontzeko dokumentazioa, behin-betiko pabilioiaren banaketako plano eta aurrealdean jarritako errotulua legeztatze dokumentazioa (Esp. Zenb.:HZ.05/2015-126), gai den teknikariak zigilatuta eta elkargo ofizialaren zigiluarekin, eta 2015eko ekainaren 9an eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztu dute.

1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorreko 59-2 eta 61-2 artikuluen arabera, Udalak eta Osasun sailak ezarritako neurri zuzentzaileak osatu diren egiaztatze, ikuskapena burutu da.

Jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, oniritzia ematen da errotuluak legeztatzeari eta jarduerari.

2015eko ekainaren 17an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua Arzallus

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ATALLU AUTOAK KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIAK (IFK: F-75129858), Atallu industrialdeko Oria kalea 4. pabilioian ibilgailuak konpontzeko ezarritako tailerrari irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: ATALLU AUTOAK KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIAK (IFK: F-75129858), Atallu industrialdeko Oria kalea 4. pabilioian ibilgailuak konpontzeko ezarritako tailerraren aurrean jarritako errotulua legeztatzea (Esp. Zenbakia: HZ.05/2015-0126).



Usurbilgo Udala



HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

2.- AGINAGAKO ASISKO SAN FRANTZISKO PARROKIAREN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN IBON ALBERDI URRESTARAZURI, AGINAGAKO ELIZAREN ESTALKI EGITURA KONPONTZEKO ETA ESTALDURA ORDEZKATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2015-0267

AGINAGAKO ASISKO SAN FRANTZISKO PARROKIAren ordezkartzan diharduen IBON ALBERDI URRESTARAZU jaunak, Aginagako elizaren estalki egitura konpontzeko eta estaldura ordezkatzeko udal baimena eskatu du.

EXEKUZIO PROIEKTUA

2015eko uztailaren 6an aipatutako udal baimena eskatzearekin batera, Ibai Kerejeta Otxotorena eta Igor Emparan Martinez arkitektoek idatzitako Exekuzio Proiektua aurkeztu du.

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
AGINAGAKO ASISKO SAN FRANTZISKO ELIZAREN ESTALKI
EGITURA KONPONTZEKO ETA ESTALDURA ORDEZKATZEKO
BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: AASSetako SGER-1. Aginaga auzoa.Usurbil
ESKAERA DATA: 2015eko ekainaren 19a.
ESKATZAILEA: Ibon Alberdi Urrestarazu (Asisiko San Frantzisko Parrokiaren izenean).
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2015-267
AURREKONTUA: **148.805,91 €(PEM)**
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: **500,45 €**Fidantza
(%120): **600,54 €**

TXOSTENA

2015eko ekainaren 19an Ibon Alberdi Urrestarazu jaunak Aginagako Asisko San Frantzisko Parrokiaren izenean elizaren estalki egitura konpontzeko eta bere estaldura ordezkatzeko proiektua aurkeztu du dagokion baimena eskatzeko. Aurkeztutako dokumentazioa honakoa da: eskaera orria eta Exekuzio Proiektua (Ibai Kerejeta eta Igor Emparan arkitektoek izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia). Proiektuak, era berean, honakoak barneratzen ditu: Memoria eta Eranskinak, Aurrekontua, Segurtasun



Usurbilgo Udala



eta Osasun Azterlana, Baldintza Plegua, Kalitatearen Kontrolerako Plana, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana eta Planoak.

Aurkeztutako proiektuaren arabera Asisiko San Frantzisko elizaren estalkiko egitura konpondu eta estaldura ordezkatu egin nahi da. Mendebaldeko isuriak hondoratze nabarmena omen du elizako hormarte nagusia estaltzen duen gunean; eta hondoratze hori zertxa baten hutsegiteak eragindako estalkiko forjatuaren deformazioak sortu omen du. Hala, batetik, estalkiko egitura konpontzea eta sendotzea proposatzen da; eta, bestetik, estalkia arintzeko, gaur egungo hormigoizko teilaren ordezkari sandwich panel berriak jartzea. Proposatutako estalkiaren oinplantan 2 aukera aurkeztu dira (ikus 03 eta 04 planoak); baina bien artean dagoen alde bakarra iparraldeko alero bat mantentzean edo ez mantzean oinarritzen da (aldea ez da oso esanguratsua). Elementu horren egoeraren arabera erabakiko omen da bera mantentzea edo eraistea.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

- **HIRIGINTZA ARAUDIAREN BETETZEA:** Konpondu nahi den eraikina Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bateginaren arabera (GAO 2013-09-10), hiri lurzoruan kokatzen da, hain zuzen, SGER-1 ASISKO SAN FRANTZISKO ELIZA eremuan. Dagokion hirigintza fitxak honakoa ezartzen du, besteak beste:

1.- IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Eraikuntza erlijioso baten eta bere erabilera osagarrien mantentzea.

(...)

4.- ANTOLAMENDUA

Egungo eraikuntza finkatzen da.

Aurkeztutako proiektuak proposatzen duen esku-hartzea eraikinaren mantentze lanetara mugatzen da; elizaren estalkiko egitura konpondu eta estaldura ordezkatzeko du helburu, hain zuzen ere. Beraz, dagokion hirigintza fitxarekin bat dator proposatutako esku-hartze hori.

- **EKT-REN BETETZEA ETA BESTEAK:** Aurkeztu da. Hala ere, suteen aurkako babesari dagokionez, DB-SI-6 "Resistencia al fuego de la estructura" dokumentuaren justifikazioan eta aurrekontuko "trabajos complementarios recomendables a ejecutar" atalaren arabera, ez da garbi gelditzen estalkiaren egiturak bete beharreko suaren aurreko estabilitatea (R-90) beteko den ala ez (aukerako egin beharra dela dirudi proiektuaren arabera). DB-SI-4 "Instalaciones de Protección contra incendios" atala ere bete egin beharko da. **Ezinbestean bete egin beharko da EKT-a eta gainontzeko araudi aplikagarria; bereziki suteen aurkako babeserako araudia. Besteak beste, DB-SI-4 eta DB-SI-6 atalak.**
- **PROPOSATUTAKO MATERIALAK:** teilatuaren estalki berria sandwich panelen bidez estaltzea proposatzen da, gaur egungo hormigoizko teila ordezkatzuz. Teilatu-hodiak eta zorrotan ere,



Usurbilgo Udala



gaur egun PVC-zkoak direnak, altzairuzkoengatik ordezkatzeari proposatzen da. **Bai Sandwich panelek eta baita teilatu-hodi eta zorrotenek ere kolore ilunekoak izan beharko dute (marroi iluna edo gris iluna)**

- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Gogorarazten da, obren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatzerik behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 500,45 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (600,54 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - o **Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.**
 - o **Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.**
 - o **Obraren egikaritze epe gehiengoa: 1 urte.**

ONDORIOAK

Goian esandakoari jarraiki, **ALDEKO** txostena idazten zaio Aginagako Asisko San Frantzisko Parrokiaren estalki egitura konpontzeko eta bere estaldura ordezkatzeko eskaerari, beti ere, aipatu baldintzak betetzen diren artean. Proiektuan jasotzen denaren arabera, eraikinaren egoera ezagututa, esku-hartzea ahalik eta eperik laburrenean egitea eskatzen da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko uztailaren 9an.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: AGINAGAKO ASISKO SAN FRANTZISKO PARROKIAren ordezkarietan diharduen IBON ALBERDI URRESTARAZU jaunari, Aginagako elizaren estalki egitura konpontzeko eta estaldura ordezkatzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:



Usurbilgo Udala



- Ibai Kerejeta Otxotorena eta Igor Emparan Martínez arkitektoek 2015eko ekainean (EHAEO 2015-06-29) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Ezinbestean bete egin beharko da EKT-a eta gainontzeko araudi aplikagarria; bereziki suteen aurkako babeserako araudia. Besteak beste, DB-SI-4 eta DB-SI-6 atalak.
- Bai Sandwich panelek eta baita teilatu-hodi eta zorrotenek ere kolore ilunekoak izan beharko dute (marroi iluna edo gris iluna).
- Obra burutzeko zoru publikoa erabili beharko balitz, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Baimen honetan zehazten ez den arren, indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri/elementu/obra-ren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da, eta beraz, ez da baimen honetan inplizituki onztat ematen.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: urte 1.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.
- Ikastetxea dagoen eremuko obrak ikasturtea hasi baino lehen amaituta egotea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 500,45 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (600,54 euro). Fidantza itzularazteko, obra amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketaren azken



Usurbilgo Udala



txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretuaren 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

600,54 €ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta *“Fidantza: HZ.04/2015-0267”* jarriaz kontzeptuan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:50ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.